


Arrasateko kanpusean Zientzia Astea.

2009/11/09

Zientzia Astearen IX. edizioaren barruan, Mondragon Taldeko enpresek teknologia hedatzeko jarduerak egingo dituzte, hurrengo asteleheneetik azaroaren 22ra (igandera) bitartean

Ø **Jardueron bidez, zientzia gizarteari hurbildu nahi zaio, Mondragon Unibertsitatea eta Mondragon Taldeko beste enpresa batzuk Ikerketa eta Garapenaren aldetik egiten ari diren lana ezagutzera emanez.**

Ø **Gainera, zenbait film eta dokumental zientifiko emango dira Garaia Auditorioan, azaroaren 17an, 19an, 21ean eta 22an.**



Gipuzkoarrei zientzia, berrikuntza eta teknologia modu didaktikoan helarazteko asmoz, Mondragon Unibertsitateak, Garaia Berrikuntza Guneak, Ikerlan-IK4 Zentro Teknologikoak, AOTEKek (Fagor Automationen I+G Unitateak), Edertek Zentro Teknologikoak, Arizmendi Ikastolak eta Mondragon Korporazioak zenbait jarduera antolatu dituzte azaroaren 9tik 22ra bitartean, Eusko Jaurlaritzak eta Innobasquek sustatutako Zientziaren, Teknologiaren, Berrikuntzaren, Kalitatearen eta Bikaintasunaren IX. Astea.

Jarduera horien bidez, berrikuntzaren eta gizartearen arteko elkarrizketa bultzatu nahi dute, gizarteak berrikuntza ulertu, onartu eta aintzat hartzeko baldintza egokiak sortuta berrikuntza garatzeko helburuz.

Horretarako zenbait jarduera antolatu dira Garaia Berrikuntza Gunean, hilaren 16tik (asteleheneetik) 22ra bitartean, Zientzia, Teknologia, Berrikuntza, Kalitatea eta Bikaintasuna gizarteratzeko xedez. Era berean, ekimen horrek Arrasate inguruko ikerketa-agenteei garatzen dituzten jarduera zientifikoak ezagutzeko aukera emango die hurbiltzen direnei .

Horrela, datozen egunetan, Mondragonen Zientzia eta Teknologia Planaren inguruko gaiei buruzko jarduerak egingo dira. Jarduera horien artean hauek nabarmentzen dira: Ikerlan-IK4 Ikerketa Teknologikoen zentzora bisita gidatuak; Mondragon Unibertsitateko I+Geko laborategietara bisita gidatuak eta erakustaldiak (Telekomunikazioak, Mekanizazioa, Energia, Konformatua, Industria Diseinua eta abar); Garaia Berrikuntza Gunea bisita gidatuak; eta MCCko enpresetara bisitaldi gidatuak, hala nola, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Fagor Arrasate, Ulma Construcción, JMara eta Copreci kooperatibetara.

Zinema Zientifikoa

Azaroaren 17an, 19an, 21ean eta 22an, Garaia Auditorioan, zenbait film eta dokumental zientifiko emango dira, besteak beste honako hauek: 'Los pastores del bosque flotante', 'Micromater', 'El misterio de la luz', 'El hombre que desplegó mil corazones', 'Los arácnidos', 'El pulpo de Stromboli' eta 'Comportamiento animal'. Azaroaren 17an eta 19an, 17:30etik 20:00etara emango dira, eta asteburuan, 21ean (larunbata) eta 22an (igandea), 11:00etatik 13:30era. Garaia Berrikuntza Gunea joaten direnek bisita gidatua "segway" ibilgailuz (bi gurrupildun ibilgailu elektrikoak) egiteko aukera izango dute.

